### Manu Robles-Arangiz fundazioak Karmelo Merinoren “La huelga” izeneko lana argitaratu du

# Greba, funtsezko eskubidea

Manu Robles-Arangiz Institutua Fundazioak Karmelo Merinoren (Donostia, 1957) “La huelga “ izeneko liburua argitaratu du. Egileak lehenik ELAn INEMeko ordezkari legez liberatuta jardun zuen, eta 1996tik hona zerbitzu juridikoetan ari izan da lanean.

Sindikatuko ibilbide oparo honetan bildu dituen esperientzia eta gogoetek eraginda Karmelo Merinok lan-gatazka eta grebei buruzko liburu hau osatu du. Behar handiko lana, izan ere, etengabeko erreforma medio langileen eskubideei lege laboralek garai batean ematen zien babesa ez daukate bermatuta; “enpresen lehiatzeko ahalmenaren mesedetan, eta hain zuzen kapitalaren aldeko tresna” bihurtzen ari baitira, liburuaren hitzaurrean Eustakio Urangak dioen moduan.

Gainbehera juridiko horrek eta greba egiteko administrazio zein enpresaburuek ezarri nahi dituzten oztopo gero eta sarriagoek (gutxieneko zerbitzuak, halabeharrezko laudoak, grebak legez kanpo jartzeko ahalegina) langileen interesen defentsa – greba horretarako bitartekorik eraginkorrena izaki– galaraztea dute helburu.

Langileek eta ordezkari sindikalek legeria eta prozedura administratiboak ongi ezagutu behar dituzte funtsezko eskubidea den greba deitu eta egiterakoan behar baino arazo gehiago sor ez dadin. Hartara, liburuan gaiaren alde oro jorratzen da: gatazka kolektibo motak, grebari buruzko legeria, greba legez kanpokoa noiz jotzen den, gehiegizko greba, greba-batzordea, funtsezko zerbitzuetan egiten diren lanuzteak, grebaren ondorioak...

Lanerako -eta lanari uko egiteko- lan interesgarria, beraz, eta gaurkotasun handikoa. Izan ere, Karmelo Merinok sarreran aipatzen duen Otto Kahn-Freund legelariak dioen legez, “kapitalaren eta lanaren arteko gatazka jendarte industrialarekin batera doa, eta horregatik, lan-harremanekin ere”.

### La Fundación Manu Robles-Arangiz publica el libro de Karmelo Merino “La huelga”

# La huelga, derecho fundamental

La Fundación Manu Robles-Arangiz acaba de publicar el libro titulado “La huelga”, de Karmelo Merino (Donostia, 1957). El autor, delegado de ELA en el INEM, estuvo liberado en tareas sindicales y a partir de 1996 trabaja en los servicios jurídicos del sindicato.

La amplia experiencia que le ha dado su trayectoria sindical ha servido a Karmelo Merino para emprender el trabajo de reunir en un libro todo lo relativo a la huelga. Este era un trabajo necesario, ya que, a debido a la incesante reforma laboral, la legislación laboral ya no supone una garantía infalible para los derechos de los trabajadores y trabajadoras; “el derecho del trabajo va configurándose -según afirma Eustakio Uranga en la presentación del libro- como un instrumento al servicio de la competitividad de las empresas y más en concreto como un instrumento favorable al capital en relación al trabajo”.

Ese deterioro jurídico y los obstáculos que cada vez con mayor empeño intentan poner las administraciones públicas y los empresarios (servicios mínimos, laudos de obligado cumplimiento, intento de ilegalizar las huelgas) se proponen impedir el ejercicio de los derechos de la clase trabajadora, cuyo instrumento más eficaz sigue siendo la huelga.

Los trabajadores y trabajadoras y quienes les representan deben conocer en profundidad las leyes y procedimientos administrativos para que los conflictos laborales no planteen inconvenientes imprevistos. Por ello, Merino aborda en el libro todos los aspectos de la cuestión: los tipos de conflicto colectivo, la legislación sobre la huelga, los casos en que se considera ilegal, la huelga abusiva, el comité de huelga, los paros en servicios esenciales, las consecuencias de los conflictos...

Estamos, por tanto, ante un trabajo muy interesante y de gran actualidad para el trabajo y la acción sindical. No en vano, tal como dice el jurista Otto Kahn-Freund en una cita recogida por Karmelo Merino, “el conflicto entre capital y trabajo es consustancial a la sociedad industrial y, por ello, a las relaciones laborales”.